

i i i i i i i

ikimilikiliklik

k m l k l kl k

i i i i i i i

k m l k l kl k

ikimilikiliklik

i i i i i i i

k m l k l kl k

ikimilikiliklik

ikimilikiliklik

ikimilikiliklik

ikimilikiliklik

ikimilikiliklik

ikimilikiliklik

IKIMILIKILIKLIK

Gaur arratsean ikusiko duzuen kantaldia ez da arras besteak bezalakoa izanen. Baina haste-hastetik denei erraten ahal dugu gostatuko zaizuela. Halabaina Mikel Laboa dugu kantari eta nork ez daki zer langile harrigarria den euskal soinu zahar biltzaile bezala bai eta ere aire berrien sortzaile ? ! Azken hamar-hamaborts urte hauetan herri-herri ibilia da denetan arrakasta gaitza bilduz. Aldi honetan zerbait berri eskaini bezala bai eta ere aire berrien sortzaile ? ! Azken hamar-hamabots urte hauetan herriz-herri ibilia da eta denetan arrakasta gaitza bilduz. Aldi honetan zerbait berri eskaini nahi izan digu, eta iduriz segurik bide hori harturik ez dauka dolurik. Baina, Mikel Laboa baldin badugu kantari, hor dugu ere Joxe-Antton Artze, olerkari. Eta zer olerkaria ! Euskadiko poeta hoberenatarik bat, duda-muda izpirik gabe. Bestalde, duela zenbait urte, Joxe-Antton-ek ezagutarazi zigun txalaparta, eta laster, bere anaia Jesus Lagun, entzunen dituzue, xoraturik atxikiko baitzaituzte. Jakin behar da oraino, J.A. Artzek egina duela emankizun honen moldaketa guztia, hots -teknikalariak aldiz J.L. Zabala eta Bixente Karda direlarik.

jokalariak : mikel laboa
artza aniak
ja artze
moldaketa : ja artze
hots teknikariak : j.l. zabala
bixente karda

BIDEKIDEKARIA

LEHEN ZATIA

Begiratzten den olerki baten agerpena, hitz honekin : «lagun» geroxago bilakatzen dena...

gu
la n
lagun

Txalaparta : lanerako ohidurazko ritmoa, dei eta ezagutgarri batzuen ritmoa, erlijio ritmoa. Gaur-egun, ritmo-musikal baten espresioa. Txalaparta, elkarrizketa bat da, beti eta aldi oro berriz asmatua bi tresnalariren artean bai eta laster haien ingurukoen partaliertasunarekin.

Mikel Laboa : «Txori erresiñula» Xuberotar kantu xaharra.

1

Txori erresiñula, udan da khantari,
Zeren ordian beitu kanpuan janhari ;
Negian ez't ageri ; balinban ezta eri !
Udan jin baledi,
Konsola neinte ni.

2

Txori erresiñula ororen gehien.
Bestek beno hobeki har'k beitu kantatzen ;
Harek du inganatzten mundia bai trunpatzen ;
Bera ez'tüt ikhusten
Bai botza entzuten.

3

Botz haren entzün nahiz herratürik nago ;
Ni hari hüllant eta hura hürrünago ;
Jarraiki nintakio bizia gal artino :
Aspaldi handian
Desir hori nian.

4

Txoria zuñen eijer khantüz oihanian !
Nihaurek entzün dizüt igaran gaiian.
Eia ! guazen, maitia, bi biak ikhustera :
Entzuten badüzü,
Xarmatüren zütü.

5

– Amak ützi nindizün bedats azkenian ;
Geroztik nabilazü hegalez airian.
Gaiak urthuki nindizün sasiño batetara,
Han züzün xedera,
Oi ! ene malürra !

6

Txoria, zaude ixilik, ez egin khantürik ;
Txoria, zaude ixilik, ez egin khantürik
Estüzü profeitürik ni hola phenatürik,
Ez eta plazerik
Ni thunban sarthürik.

7

– Bortiak xuri dira elhür dianian,
Sasiak ere ülhün, osto dianian.
Ala ni malerusa, zeren han sarthü nintzan ?
Jun banintz aitzina,
Eskapatzen nintzan.

8

– Xoria, zaude ixilik, ez egin nigarrrik,
Zer profeitü dükezü hola aflikitürik ?
Nik eramanen zütüt xedera laxatürik,
Orhiko bortütik,
Ororen gañetik.

«Bi kate», semearen eta amaren arteko harremanak eskatzen du bi kateen moztea : Gorputz eta izpirituak dauzkatena, horrela, semeak bere ama eta amak bere semea sendoki eta osoki maitatzen ahalko du.

PREMIERE PARTIE

Projection d'un poème visuel, une parole : «lagun» (compagnon, camarade) qui bientôt se décompose en...

gu : nous
l an : travail
lagun : compagnon, camarade

Txalaparta : rythme traditionnel de travail, rythme pour les appels, les signaux, rythme religieux. Actuellement, moyen d'expression rythmico-musical. Txalaparta est dialogue, toujours et complètement improvisé entre deux exécutants et bientôt partagé avec l'entourage (inguru).

Mikel Laboa : «Txori erresiñula» (Le rossignol), chanson traditionnelle souletine.

«Bi kate» (Deux chaînes), problème de la relation filiale et nécessité de couper les deux cordons ombilicaux, les deux chaînes qui lient à la mère : celle du corps et celle de l'esprit, unique manière pour que fils et mère, mère et fils puissent s'aimer sainement et complètement pour toujours.

bi kate ;
biak ebaki beharrezkoak :
bat gorputzaren bizitzeko,
bestea gogoaren askatzeko.

adizu, ama
ba dakizu
sortze berean
zuri gorputzez lotzen ninduen
zilbor-hestea
sendagileak nola ebaki zuen

lehehengo eten beharra izan zen :
bizitzaren
bizitzeko lehen legea.
haurtzaroan
zure titia eman zenidan ;
mutil-zaroan
eskoletara bidali ninduzun,
bizitzarako harmak hartze arren.
dana eskertzen dizut ;
duan balore guztian,
nik ahal dutan neurrian.

bainan, gaztaroan
amatxo maite !
ohar zaite
benetan maite nauzun ama
izan nahi baduzu
eta nik zu maitatzea,
ni naizena
nik izatea nahi dutana izatera,
ez utzi bakarrik,
bultza behar nauzula.

hau baita bide bakarra
biok alkar sanoki maitatzeko,
biok alkar osoki eta betiko maitatzeko :
zuk zure nortasunaz,
nik nereaz.

ama !
eten dezagun
lehen gorputzarena bezela
orain,
gogoaren zilbor-hestea.

«Zaude lasai» (Attends tranquillement)

Si tu attends qu'ils te libèrent
Attends tranquillement
Attends avec foi
Qu'ils t'aient libéré
Cela fait si vilain, des cadavres qui portent des chaînes !

«Zaude lasai»

Askatuko zaituen
zai bazaude
Zaude lasai
Zaude ziur
askatuko zaituela.
Kateak ikusiak baitira
hilotzen gorputzetan !

J. Artze : (Récitatif)

«Itxuraldatze» (Métamorphose) 14-XII-1966 (jour du référendum des 25 ans de «paix»). Pour maintenir la paix, Joseph laisse prendre sa femme, laisse violer sa fille, laisse mourir de faim ses enfants, se laisse déposséder de sa maison... pendant ce temps Joseph devient successivement boeuf, porc, brebis, poule glousse, jusqu'à ce qu'une souris l'avale, le prenant pour une fourmi.

J.A. Artze : (mintzatua)

«Itxuralde» 1966/XII/14a (25 urte «bake»-ren buruan egin «hauteskundera»).

Joxe-ri emaztea ostu ziotenean
pakeagatik, ez zuen ezer esan
eta muuu! eginaz aldegin zuen.

Bere semeak goseak hil zizkiotenean
pakeagatik, ez zuen inor jo
eta beee! eginaz izkutatu zen.

Bere alaba bortxatu ziotenean
pakeagatik, ez zuen ezer egin
eta kurrinkaz ospo egin zuen.

Galtzak kendu ta atzea astindu zioten :
pakeagatik, ixilik gelditu zen.
ordu, arratoi batek
«amen» batean irentsi zuen Joxe
zingurria zalakoan.

Etzetik bota zutenean
pakeagatik, ez zuen ezer esan
eta kolkaren gisa zokoratu zen.

Filma : Bizimin (bizitzeko mina)
minbizi (kanzer)

«Maitasun kanta»

Ondotik filmatxo bat :

Portugaldar batek
honela hitzegin zidan behin :
—«kagak diru egingo balu
gu, behartsuok,
ipurdian
zulorik gabe
sortuko gintazkek».

Film : bizimin : mal de vivre
minbizi : cancer

«Maitasuna kanta»

Parce que notre chant est amour/chit ! mort/ils nous font taire
parce qu'à la chasse nous lui souhaitons longue route
parce que les arbres nous sont tellement nécessaires sur pied/les
racines profondes/le sang chaud
parce que ce que nous avons gagné, nous le voulons pour nous/
parce que nous ne voulons pas avoir part dans les gains des autres/
ils nous écorchent vifs
parce que nous aimons/ils nous haïssent
parce que notre pays n'est pas de ceux qui commencent «ici» et
se terminent «là»
parce que notre pays commence ici et n'a pas de fin/ils ont croisé
des frontières notre terre et notre ciel et ils nous ont ouvert com-
plètement les portes de l'enfer
parce que nous parlons comme nous le faisons
parce que nous sommes d'où nous sommes
parce que nous voulons être d'où nous sommes/nous sommes
exilés dans nos terres
parce que nous voulons vivre
parce que vivants nous ne pouvons pas être leur pâture/vers de
toutes les couleurs des Tombes Impériales ils convergent et se co-
ordonnent.
pour placer des œillets et des mugets sur nos tombes.

Film : un Portugais me parlait ainsi une fois : «si la merde avait
de la valeur/ nous autres les pauvres/ nous naîtrions sans trou au cul».

«Bat ez, bi bai»

«Bat ez, bi bai» (Poème phonétique de traduction difficile).

bat ez
bi bai
hiru zai
lau nahi
bost gehi
sei segi
zazpi ez da aski
zortzi ezin etsi
bederatzi horri eutsi
hamar zenbat marmar !
goizean
ohean gia
gihartu zitzaitan
ahoa lehor
besoetan hartu nuenean.

burdin ziriak enborrean
goldeak lurrean
brankak itsasoan
ireki
ireki, ireki
ireki
deus eten gabe
sartu nintzenez
bide mehar bezain
haitzarte egartsuetan
zehir
eme hura artu nuen,
emeki
ematu zidan
deman
lema zuzendu genduen

sakonki sakanera
amultsuki idoskatzera ;
gazi gezean
geziaren gose gozoan.
gatza latz,
mahats, mikatz Mikelats.
harria arian hauts
garia harrian irin
hautsa uretan haitz
ogia labean urre

gure ahardia haserre
ardi hari ari zaiolako ahari hura dagokion harian,
Amaran hamar amama marmarrrrrrrrrrrrrrrrrrrean
bederatzi ezin erdietsiz
zortzi igurtziz
zazpi azpitik xapi
sei ai ! ama, ui !
bost ostiralean ez !
lau galduko nau
hiru
bi
bat

eman nahi zizuen ura
hura balitz
ez zenduen hori hain
ori edukiko

Mikel Laboa : «Baga, biga, higa», Lekeitio sailaren bigarren kantua.

Mikel Laboa : «Baga, biga, higa», deuxième de la série de chansons de Lekeitio. Retour aux sources de la parole, à la recherche d'un langage plus apte que le langage conventionnel, nécessaire pour pouvoir expliquer la complexité et les circonstances actuelles. Cette chanson est improvisée phonétiquement et musicalement sur la mélodie qui se dégage du parler des gens de la côte basco-basque. Le refrain (phase d'échauffement) se base sur deux jeux phonétiques traditionnels, probablement employés dans les pratiques magiques.

Hitzaren iturrira itzultzea, mintzaiaren sustriak ikertuz gaurko asko gauzaren hobeki azaltzeko. Kantu hau, betan asmatua da Bizkaiko kosta aldean entzun mintzatzeko maneraren arabera, eta hain segur arbasoen sineste zaharrekin apur bat loturik.

«Gizona eta lana ta...»

Begiratzten den olerkia hau aitzinetik antolatua da.

Lanalanalanalanana
gizona gizona
Lanalanalanalanana
Lanamakinalanamakina
nun da gizona ?

J.A. Artze : (mintzatua)

bakea,
bakea zuekin !

ez, niz ez dut nahi
zuen bakea

lurrean jendea
mila egarriz ihartzen den bitartean
ilargira joateko
eskatzen didan
bakea

hilekoak jeistea
bekatutzat daukatean
bakea

ogiaren ordain
zin bat den
bakea

egia beren aldetik bakarrik dagoela
sinestarazi nahi digutenen
bakea

zorionekoen bakea
zintzoan bakea
guduzelaietako jabea

gosetien eskuetan
bum-bum egiten duten bonboiak
jartzen dituztenen
bakea

eguneroko, segunduoro, noizhahi
nunnahi
akxak-akxak kaolibaksok
mailuarekin goxatzen dizkiguzuten bitartean
ate ultras naoluztrupari aolotop ztaheb
irrifar batez erantzuteko
konseilatzen diguzuten
bakea

ez,
ez dut emandako bakerik nahi ;
esku zabalez emana zaie
eta aski dute
hilerritakoek
heuren bakea

«Nere hertzeak» : Hertzeen barnekoak bide ona egin dezan, omenaldia.

«Gizona ta lana ta...» (poème visuel et phonétique pré-enregistré).

lanalanalanalanana — travailtravailtravailtravailtravail
gizona — homme
lanatajanatamakinata — travailmangeretmachineet
nun da gizona ? — où est l'homme ?

J. Artze : (Récitatif)

«Bakea» (La paix)

Paix distinctes qu'ils désirent pour nous, qu'ils nous offrent, qu'ils nous donnent en cadeau... de cette paix concédée ils en ont jusqu'au rassasiement ceux qui reposent à jamais dans les cimetières.

«Nere hesteak» (mes intestins), chanson-hommage à leur bon fonctionnement.

«Ama hil zaigu» :

Mère est morte/exténuée de travail
pour l'amour du travail/mère est morte/sans
arriver à savoir/sans arriver à se demander à quoi
sert la vie.
de la même manière/
par peur de la vieillesse/sans connaître la jeu-
nesse/la tante est morte.
Elles meurent comme les oiseaux dans la main/
nous laissant un amer cri-interrogation dans la
gorge.

«Galdu dutenekin» :

Je m'unirai à ceux qui ont perdu/mais
jamais/jamais je ne le ferai/à celui qui n'a
pas joué.

Mikel Laboa :

«Besterik ezagutu ez eta» : Sans connaître rien de plus et... satis-
fait ! Sans prêter attention à tout ce qu'il est en train de laisser et
dont il aurait fallu jouir et souffrir et vivre.

«Ama hil zaigu»

ama
hil zaigu
lanak ithota ;
lanaren amoreakgatik
hil zaigu
zertarako den bizi-tza
zertarako den bizi-tza jakitera
iritsi gabe

zahartzaroaren beldurrez
gaztaroa ezagutu gabe
izeba ere hil da ;
era berdinean
hil da izeba...

«Galdu dutenekin»

galdu dutenekin elkartuko naiz
bainan, ez
sekulan ez
jokatuko ez duenarekin

Mikel Laboa

«Besterik ezagutu ez eta»

besterik ezagutu ez eta
ase
irrintzi zakar bat
hautsi da zure gelako leihoan
besterik ezagutu ez eta
ez ote zaude kezkatu
eta zeuk
ez diozu jaramonik egin
besterik ezagutu ez eta
ea erien artetik
ez ote zaizkizun
geroztik
txistua dena kexu
hots du
zure muinaren bila

besterik ezagutu ez eta
bizitzaren zenbait gauza eder
eskapatzen ari
eta zeuk
ez diozu jaramonik egin
besterik
besterik ezagutu ez eta...
sabelpeko dardar ozena
ez zaizu lainotuko
H
I
L
H I L K O sortu artio
O

«Maite ditut maite»

maite ditut
maite
geure bazterrak
lanbroak
izkutatzen dizkidanean

zer izkutatzen duen
ez didanean ikusten
uzten

orduan hasten bainaiz.
izkutukoa...
nere barruan bizten diren
bazter miresgarriak
ikusten

«Beretherretxeren kanthoria» : XV-garren mendeko Ziberotar kantua honek kondatzen digu Beretherretxe saldua eta erhainlia izan zela Comte de Lerin-en manuz, (azken hau Ferdinand Le Catholique-n ahaidea zen).

Haltzak eztü bihotzik,
Ez gaztanberak ezürrik.
Enian uste erraiten ziela aitunen semek gezürrik.

Andozeko ibarra,
Ala zer ibar lüzia !
Hiruretan ebaki zaitan armarik gabe bihotza.

Beretherrexek oheti
Neskatuari eztiki :
«Abil, eta so egin ezan gizonik denez ageri ? »

Neskatuak berala,
Ikusi zian bezala,
Hiru dozena bazabiltzala borta batetik bestila.

Beretherrexek leihoti
Jaun Kuntiarri goraintzi :
Ehün behi bazereitzola, beren zezena ondoti.

Jaun Kuntiak berala,
Traidore batek bezala :
«Berterrex, aigü bortala : Utzüliren hiz berala».

— «Ama, indazüt atorra
Mentüraz sekülakoa !
Bizi denak orhoit ükenen dü Bazko-gaiherdi ondua !

.....
Ezpeldoiko bukata,
Ala bukata ederra !
Beretherrexen atorretarik hirur dozena ümen da.

«Maite ditut maite» : Viscérablement j'aime/j'aime nos paysages/
quand la brume me les cache/ quand elle ne
me laisse pas voir/ce qu'est ce qu'elle cache.
Puis alors, je commence à dévoiler ce qui est
caché/ces merveilleux paysages/qui commen-
cent à surgir de l'intérieur de moi-même.

«Beretherretxeren Kanthoria» : (chanson de Beretherretxe), chan-
son traditionnelle souletine du XVème siècle, qui raconte la trahison
dont fut l'objet Beretherretxe, et qui le fit tuer des mains du Comte
de Lérin, parent de Ferdinand le Catholique.

DEUXIEME PARTIE

Film : Ils relâcheront le noeud, mais ils ne le défaireont pas.

Mikel Laboa

«Izarren hautsa»

La poussière des étoiles se transforma un jour en germe de vie
et d'elle nous sortîmes à un certain moment.
et nous vivons ainsi, créant et recréant notre monde
sans repos : nous survivons en travaillant
et nous sommes tous attachés à cette dure chaîne.
l'homme a besoin de dominer un milieu hostile
il vit dans cette lutte et d'elle il tire sa vérité
le travail humain est connaissance : connaître et transformer ;
fraterniser avec la nature et arriver à la dévoiler...
créer le positif à partir de la négation
et continuer à avancer en prenant pour loi la contradiction.

.....
.....
de la même souche que nous sommes nés d'autres naîtront,
jeunes rameaux qui continueront la lutte
qui se constitueront en maîtres conscients de leur avenir
et marcheront fermes, se relevant, à chaque chute :
et ainsi, par la force et l'évidence des faits,
ils convertiront en féconde et rationnelle réalité ce qui est en nous
rêve et désir—

J. Artze : «Ikusiko duzu» Larraitz 1.

BIGARREN ZATIA

Filma : Korapilioa laxatuko dute, baina ez deseginen.

Mikel Laboa

«Izarren hautsa»

J. Artze : «Ikusiko duzu» Larraitz 1

IKUSIKO DUZU

zapaltzailearen ezpata odoleztatua mihiarekin xukatuz
nola garbitzen laguntzen duten.
nundik norakoan den odol hori
jakiterakoan, nola itsumutugor bilakatzen diren.

NABAITUKO DUZU

begiak nola tximistargitzen zaizkien, belarriak burrunbaz gainezkatzen
eta entzungo, bai entzun, ahotik miztoa daritela nola sua eskatuko duten

baldin mutiko horrek
neskatxa hori
amultsuki
maitatzen badu agerian.

Mikel Laboa

«Nere juaneteak»

zapalketa gorriaren
erahilketa bilutsiaren aitzinean
entzungo diezu «erruki» hitza aipatzen

xurgatze amorratuaren
jende gosetien aurrean
entzungo diezu «karitate» hitza goraltzen

lantegiak geldieraziz
herria kaleratzen denean
entzungo diezu «bakea, bakea» deihadarkatzen

zapalduak oro batzen direnean eta
lurra ikaran ezarri
entzungo diezu :

— «ai ! nere juaneteak»

J. Artze

«Koipe lustreren otoitza»

Mikel Laboa

«Bedeinkatua» (Xabier Lete)

Bedeinkatua
santifikatua
hirugarren ordenako buruzagi
ospetsua,
herriaren zaintzailea,
birtute guzien irudi
eta zeruko erreinuen
espillua,
zu, mantxarik
gabea,
espirituz bezain gorputzez
legorra,
zuhurtasunez josia,
hitz ederren
eta fortuna dezentearen
jabea,

zu,
nunbaitetik etorria
profeten abotsa
auzokoen kezka.
.....
Zu,
Malta-ko kaballeroa
prozesioetako zingurria
oitura onen defentsailea
dantza zikinen
etsai amorratua,
neskazarren poz zimurra
agure okerren segurantzia
ilunpetako zomorroa,
nausi guzien serbitzari
parerik gabea,
hamargarren mendeko itzala

Mikel Laboa : «Nere juaneteak» Larraitz 2. (mes oignons aux pieds).

devant la cruelle oppression et le crime effronté
tu les entendras mentionner le mot «COMPASSION»
devant l'expoliation et la face des gens affamés
tu les entendras peser le mot «CHARITÉ»
quand arrêtant les usines, les gens sortiront dans la rue
tu les entendras crier «PAIX, PAIX»
que les opprimés s'unissent
et que leur indignation fasse trembler la terre
tu les entendras dire :

«Aïe, mes oignons !»

J. Artze : «Koipe lustreren otoitza» Prière du briseur de grèves.

OH, NOTRE PATRON/père et oncle/toi qui t'éveillant jour
et nuit pour notre bien/ES DANS UN PALAIS/QUE TON
NOM SOIT BÉNI/Comme aussi celui de ta nombreuse fa-
mille/QUE TON AUMONE NOUS VIENNE/ce qui n'a ja-
mais été que simple justice/QUE TA VOLONTÉ SOIT FAI-
TE/tant à l'usine/qu'au lit/AU CIEL COMME SUR LA
TERRE.

DONNE-NOUS AUJOURD'HUI/le travail dont nous avons
besoin jour après jour/pour que ton nom soit davantage
béni/PARDONNE NOS DETTES/et de n'avoir pas produit
autant que tu l'aurais désiré/COMME SEUL TU SAIS/
PARDONNER A TES DÉBITEURS/ET NE M'ABANDON-
NE PAS DES MAINS DE TES POLICIERS/mais évite-moi
de tomber dans les griffes de mes compagnons. AMEN.

Mikel Laboa : «Bedeinkatua»

Béni et sanctifié/président perpétuel d'honorable associa-
tion/gardien du peuple, image de toute vertu/et miroir du
royaume des cioux/toi, immaculé, sec de corps et d'âme/
Monsieur de bon sens, propriétaire de belles paroles/et
considérable fortune ; toi, voix du prophète/et angoisse du
voisinage/...

toi, chevalier de Malte, fourmis de procession/défenseur des
bons usages/ennemi terrible des bals licencioux/serviteur de
tout maître, propriétaire de douze maisons, toi/...
Je pense que le jour de ta mort, les vers du cimetière dévo-
reront un bon repas.
Que le vent n'emporte pas ma parole. Amen.

hamabi etxeren jabea
 zimaurretako zizare kolore gabea
 santua
 santua
 guztiz santua.

Auzi konpontzailo trebea
 Ciceron berpiztua
 Grekoa-ren koadroetatik
 ateratako
 gizon magroa,
 sabiduriz eta aserrez beterik
 munduko pekatuen
 aurrean

oiu egiten duena,
 lapur galanta
 astazakil paregabea...
 zure heriotzako egunean
 kanposantuko arrak
 bazkatuko dute
 zimauro gozoa.

Nere
 hitza
 ez
 dezala
 haizeak eraman.
 Amen.

J. Artze : «ZETA zaharraren maitasun kantua». Chanson d'amour du vieux ZEDE. Poème phonétique, basé dans le phonème Z. Le son de cette lettre aussi bien que sa forme écrite (zigzagante) ont une étroite relation avec le développement de la trame du poème.

Le thème traite de la manière dont le sexe du vieux Zède se rebelle, alors que la raison lui disait qu'il n'était pas là pour ces besoins.

J. Artze : «ZETA zaharraren maitasun kantua».

Fonetikako poema, «Z»-en bihurtzeko buruz egin.

Zzzzzzzzzzzzziri
 zzzzzzzzziri
 zzziri zozo
 ziri zoro
 zoro
 zozo

ziri
 zir i
 zirri
 zirri !
 zirrikitu

zarra-zarra
 ZETA zaharra
 zirri-zirri
 zirikatu
 zirrikituan zalantza
 ZETA zaharrak

zabal
 zabal zelaia
 zabal zabalik

zirurika
 zoro
 zuztarra
 zuzen
 luze
 zorrotz

zirt edo zart
 ziri
 z
 i
 r
 r
 i
 z
 t
 a
 n
 zart
 zipotz

zir-zir
 zapa-zapa
 zapla-zapla
 zanga-zanga
 zar-zar
 zirt
 zara - zara
 zizar
 zizare

zehir zintz
 zotzzz
 hotzzzz
 tzzzzzz
 zzzzzzzzzzzzzzzzzzzzz

Mikel Laboa : Baztango «Urtsua» deitu etxeari egin omenaldia (kitarra hutsik)

«Baztan» Nafarroako ibarrari buruz egin kantua.

«Nahiz eta heriotza»

nahiz eta heriotza
helduko zaidala jakin
ez dut
haatik
horren aurka
buru-bihotzez borrokatzetik ekiko.
ez nau
ustekabeen arrapatuko !
bizi naizeno bititza kantatuko dut.

eta behar dudan
denbora baino lehen
hiltzen banaute
nere hortzetan itzaliko den azken antzia
beste batenetan
loratuko den
lehen irria
izango da

TXALAPARTA eta begiratzen ahalko diren poemak ; familiaren barneko goiti-beheitiak sakonduko dituen poema grafikoak.

Mikel Laboa : «Gernika» Oroitzapen kantua eta eten gabeko burruka. (Lekeitio sailaren azken kantua)

Oeuvres et auteurs :

«Txori erresiñula», «Haika mutil», «Beretherretxen kanthoria» (populaire)
«Bi kate», «Zaude lasai», «Besterik ezagutu», «Geure bazterrak», «Larraitz 2»,
«Baztan», «Nahiz eta heriotza» (J.A. Artze - Mikel Laboa)
«Baga, biga, higa», «Urtsua», «Gernika» (Mikel Laboa)
«Txalaparta bat», «Txalaparta bi» (Artza anaiak)
«Bedeinkatua», «Izarren hautsa» (Xabier Lete - Mikel Laboa)
«Itxuraldatze», «Maitasuna kanta», «Bat ez, bi bai», «Gizona ta lana ta...», «Bakea»,
«Nere hesteak», «Ama hil zaigu», «Galdu dutenekin», «Larraitz 1», «Koipe lustreren
otoitza», «ZETA zaharraren maitasun kantua» (J.A. Artze)
oiseaux : J.L. Zumeta

films poèmes visuels : J.A. Artze

Mikel Laboa : «Urtsua» (guitare solo, composition-hommage à la Maison de Urtsua du Baztan)

«Baztan» (chanson-identification avec cette vallée navarraise).

«Nahiz eta heriotza»

Bien que je sache/que la mort va m'arriver/je ne désespérerai pas de lutter contre elle de toutes mes forces/elle ne me cueillera pas à l'improviste ! tant que je serais vivant je chanterais la vie et s'ils me tuent avant le moment voulu la dernière plainte qui s'éteindra dans ma bouche sera le premier sourire qui fleurira sur les lèvres d'un autre

TXALAPARTA et projection de poèmes visuels ; poèmes que graphiquement veulent approfondir l'énigme des relations de tout caractère à l'intérieur des familles.

Mikel Laboa : «Gernika» chanson-souvenir et éternelle dénonciation. (dernière de la série LEKEITIO).